

## **Patxi Salaberri Zaratiegi: “Garrantzitsuena euskaldunok euskara geure ondorengoei erakustea da”**

**GALDERA.- Euskaltzain oso izendatu zintuztenetik ia bi urte joan dira. Zer-nolako esperientzia izan da?**

**ERANTZUNA.-** Interesgarria. Gauza franko ikasten ari naiz eta gauzak hobeki egiteko akuilua da euskaltzain osoa izatea.

**G.- Bi urte besterik ez, baina jadanik euskaltzain “beteranoa” zara: zu izendatu ostean, hainbat euskaltzain aukeratu dituzte. Berriztatze/gaztetze prozesu baten barruan dago Euskaltzaindia. Inportantea da? Zelan ikusten duzu?**

**E.-** Nik uste Akademian adineko jendea izatea garrantzizkoa dela, erakundea eta erakundearen historia sakon ezagutzen dutelako, aurrekoekiko lotura direlako. Bestalde, berritzea baitezpadakoa da leku guztietan, eta Euskaltzaindian ere bai. Beraz, oreka bilatu behar honetan ere.

**G.- Zer ematen diozu Akademiari? Eta zer ematen dizu Euskaltzaindiak?**

**E.-** Akademiari neure lana ematen diot, neure prestakuntza, euskararen alde gauzak egiteko dudan gogoia. Euskaltzaindiak niri izena eman dit eta lana hobeki egiteko bultzada.

**G.- Atxagak esan zuen eztabaida sutuak izaten direla osoko batzarretan. Grina handiz hitz egiten dutela euskaltzainek. Zuk ere inpresio hori hartu zenuen?**

**E.-** Atxagak bezala pentsatzen dut; gainera ni berehala sutzen diren horietakoa naiz, itxurak egiten saiatzen banaiz ere.

**G.- Onomastikan aditua zara, hori da gehien ikertu duzun arloa. Jose Mari Jimeno Juriorekin batera ibili izana (bere metodologia, nortasuna) inportantea izan zen bide hori aukeratzeko?**

**E.-** Jimeno ezagutu nueneko onomastikarako bidea hartua nuen, baina Jose Marik bideratu ninduen Euskaltzaindira, Onomastika batzordera, eta, bestalde, hagitz gizon langilea zen eta holakoa izateak lan egitera bulkatzen zaituela dudarik ez da. Adina gora-behera, elkarren osagarriak ginen prestakuntzari dagokionez eta izaeraz ez oso desberdinak. Gainera,

bataren eta bestearen herriak, Artaxoa eta Uxue, aski antzekoak dira, alderdi askotatik.

**G.- Zure sarrera-hitzaldiaren erantzunean Andres Iñigok erran zuen ikertzailea zarela, “afizioz eta ofizioz”. Ados zaude?**

E.- Bai, ikertzea arrunt gauza ederra da, zerbait berri aurkitzeak poz handia ematen du beti, baina lana egin beharra dago, denbora franko eskatzen du eta benetako bokazioa behar da horretarako. Alfer gutxi aritzen dira ikerketan.

**G.- Nafarroako hizkeren eta euskal dialektologiaren inguruko hainbat lan ere burutu dituzu, bakarrik edota elkarlanean. Non datza lan horien garrantzia?**

E.- Haste-hastetik euskara galdu den Nafarroako alderdi zabaleko hizkeraz arduratu naiz, horko berri lortzen. Bestalde, dialektologian bada oraino zer ikasi eta zer ikertu, eta ni laguntzen saiatu naiz, neure burua onomastikaritzat badut ere, ez dialektologiaritzat. Nolanahiko gisan, dena lotua dago, dena da euskara eta dena interesatzen zait. Arazoa da denborarik aski ez dela sail guztiei ekiteko.

**G.- Hizkuntza "boteretsuen" eta gutxituen arteko harremana. Non dago gakoa? Zure ustez, zelan ziurtatuko dugu euskararen etorkizuna?**

E.- Garrantzitsuena euskaldunok euskara atxiki eta geure ondorengoei erakustea da, eta, aldi berean, hiztun berriak lortzen saiatzea. Ez dakienak ez du euskararik ikasiko baldin dakienak erabiltzen ez badu. Entseatu behar ditugu gure kultura ekoizpena erakargarria izan dadin; Txepetxen gune trinkoaren ideiarekin ados nago funtsean. Honetarako dirua behar da eta erakundeen bultzada, jakina, besteak beste.

Gazteen jokamoldearekin nago kezkatua: euskaraz badakite baina ez dute hitz egiten. Arazoa “badakite” horretan dago, hizkuntza ez baitute behar bezain ongi menperatzen, ez baitira gauza naturaltasunez eta lasaitasunez mintzatzeko. Ondorioa, erdaraz ari beharra. Gurpil zoroa da: ez dute euskaraz hitz egiten euskaraz ongi ez dakitelako, eta ez dakite ongi (behar adina) hitz egiten ez dutelako. Nola atera kinka honetatik? Hor dago koska.

**G.- Aukeratu zintuztenean Nafarroako ikuspegiarekin egingo zenuela lan esan zenuen. Horrela da? Zer esan nahi du horrek?**

E.- Horrek erran nahi du nik gauzak Nafarroatik ikusten ditudala. Nafarroan sortua naiz, Nafarroan bizi naiz eta Nafarroan lan egiten dut. Badira hemen bestetan ez dauden zenbait behar eta eginkizun, ongienik nafarrok ulertzen ditugun gauzak. Euskarari dagokionez, entzuten dudana

Nafarroako euskara (batua) da gehienbat, orain, zorionez, komunikabideen bitartez bestetako irakurtzea eta aditzea zaila ez bada ere.

**G.- Zein izan behar da Euskaltzaindiaren erronka, Nafarroan?**

E.- Prestigioko erakundetzat agertu behar du Euskaltzaindiak, politikaren gainetik helburutako euskara lantzea, ikertzea, arautzea eta zaintzea duen erakundetzat. Gure egoeran hori lortzea ez da aise, baina ahaleginak egin behar.

**G.- Miquel Gros i Lladósen “Recuperación del Euskera en Navarra” liburua argitaratu du Euskaltzaindiak, “Jagon” bilduman. Zer deritzozu hor esaten denari?**

E.- Liburu interesgarria da, oraindik osorik irakurri ez badut ere. Uste dut jendearen borondatea eta nahia argi azaltzen direla hor ematen diren datuetan, baina betikoan gaude, Igantziko euskaldun bat, eman dezagun, eta Erriberriko beste bat berdina dira hor, zenbaki bana baitagokie, baina praktikan hagitz desberdinak dira. Erriberrikoak arrunt gutxi erabiliko du euskara, baita aukera duenean ere, eta Igantzikoak, berriz, asko segur aski. Alegia, kantitatea inportantea da kalitatea izan dadin, baina ez dira bi gauzak nahasi behar. Alderdi batean, Araban, demagun, euskaldunen portzentajea handia da zenbait lekutan, baina hor ezagutza ikusten da, ez erabilera. Egia da ibiltzeko lehenbizi jakin behar dela, baina jakiteak ez dakar, nahitaez, erabilera berekin. Nolanahi ere, pozgarriak dira liburuan biltzen diren datuak, ez bairik gabe.